

## **Irizar i6 modeloaren 2.000. autokarraren entrega Madrileko Ruiz Taldean.**

Madriren, 2015eko urtarrilaren 29an

### **Madrileko Ruiz Taldeko kidea den Empresa Ruiz-en instalazioetan egindako ekitaldian, Irizarrek Ormaiztegiko egoitza zentrolean, Gipuzkoan, fabrikatutako i6 autokar modeloaren 2.000. unitatea entregatu du..**

Irizar i6 modeloaren 2.000. autokarra Scania markako 410 EB 4x2 E6 bastidorearen gainean muntatu eta E. Ruiz enpresari entregatutako 5 autokarretako bat da, izan ere, horietako hiru Irizar i6 12/35 dira (12.20 metro luze eta 3.50 metro garai) eta bi i6 13/35 (13 metro luze eta 3.50 metro garai). Autokarrek 55 eserleku etzangarri, entxufeak eta USB hartuneak dituzte bidaiarientzat, bai eta helmuga adierazten duen errotulua aurrealdean eta %7 baino gutxiagoko argi transmisioa duten kristal bikoitzak estratindatuak ere.

Ibilgailu horiek Ruiz Taldearen flotan gehituko dira, eta, horrela, Ruiz Taldeak gaur egun dituen Irizar markako unitateak, Pb eta i6 modeloak barne, 69 izango dira. Horrek erakusten du zer nolako harreman estua dagoen enpresa bien artean, 2002an erregulartasunez elkarlanean aritu zirenetik. Ruiz Taldeak, gainera, Irizar markako Pb modeloaren 3.000. unitatea ere jaso zuen 2006an.

I6 modeloaren 2.000. unitate horri Irizarren gainerako produkzio plantetan -Australian, Brasilen, Hego Amerikako herrialdeetan, Hegoafrikan eta Mexikon- saldutako i6 modeloaren 2.000tik gorako unitateak gehitzen zaizkio, herrialde horietara Irizar i6 modelo 2012an heldu baitzen.

Duela 4 urte baino gehiago Irizarren i6 modelo aurkeztu zenetik indartzen joan da garraio erregular eta diskrezionalaren sektorean erreferentzia bihurtuta. Hala, Irizar i6 segurtasun, fidagarritasun eta errentagarritasunaren sinonimo bihurtu da, bidaiarien zerbitzuko premium merkatuko beste alternatiba batzuen gainera bereizita. Irizarrek marka sendotzeko duen estrategia finkatzera dator, ekoizpen planta guztien kalitatea eta produktibitatea hobetzeko inbertsioak eginez.

Empresa Ruiz estatu mailan bidaiarien garraioko talde nagusietakoa den eta Espainiako eta Marokoko hainbat hiritan presentzia duen Ruiz Taldeko kidea da. Ruiz Taldeak hiri barruko eta hiriarteko garraioko kontzesio administratibo ugari kudeatzen ditu, eta garraio zerbitzu diskrezionalak eta bisita turistikoak egiten ditu, hainbat jarduera kudeatzeaz gain, besteak beste hauek: ostalaritza eta jatetxe jarduerak, aparkalekuak, ibilgailuen alokairua gidariarekin eta gidaririk gabe, kale eta higiezin garbiketa zerbitzuak, industriako ibilgailuak eta ibilgailu partikularrak konpontzeko lantegiak. Eta horrez gain, dibertsifikaziorako bokazio handia du, zeinari esker nazioarteko holding bihurtu baita, 1.900 pertsona baino gehiagorekin, Espainian eta atzerrian milioika bezerorentzat lan egiten.

*Informazio gehiagorako, jarri harremanetan honekin:  
Ana Eceiza,  
Posta elektronikoa: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)  
Tel. : + 34 667181833*